

...eta

kittto!

858 zkia.
2013-IX-13

Garunari euskeraz eragin



emaiozu
euskarari!

ikasturtea
13/14
matrikula zabalik



Matrikula Zaba-

Titulu ofizialak / 31 urteko esperientzia
Ordutegi eta erritmo malguak / Kurtsoa
finantzatzeko beka / Ekintza osagarriak

PORTALEA – Bista Eder, 10
euskaltegiaeibar@telefonica.net

Irailaren 20 ra arte



IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo doktorea

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

Susana Sierra doktorea

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

Maitane G. Iñiguez doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

08.00 - 22.00

Zapatuetan

10.00 - 14.00

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



ASTEAN ESANAK

"Industria hiritik kanpo bidali dugu eta hori galera handia izan da. Eibar dugu arazo horren adibide garbia: industria guztia herrian egonda, gero poteoan edo frontoian jakintza transmisioa gertatzen zen eta industrien beharrek sortu zuten distritoa"

(IBON SALABERRIA, ARKITEKTOA)

"Zuri gustatuko litzaizuke auzokoak galdetzea ea laguntzarik behar duzun? Ez dut uste horretarako prestaturik gaudenik"

(EDURNE ZUBIA, GIZARTE ZERBITZUAK)

"Barneratuta daukate zer den beharrezkoa. 14 urteko alabak Internet behar du etxean, liburutegikoak ez du balio; etxeko kide bakoitzak sakeelako bat behar du. Hori dena ezbaian jartzerakoan konturatzen dira egoeraz"

(FATIMA OTEGI, CARITASEKO KIDEA)

"Euskal Herrian, sexu laguntzaileak egotea pentsaezina litzateke. Zerbait gertatzearen beldur horrek bizitzaren zati handi bat baldintzatzen du. Guk beti proposatu dugu ezinduak trebatzea, arriskuei aurre egin ahal izateko"

(JOSE LUIS GARCIA, SEXOLOGOA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

JITXIA.- Jitea edo joera, normalean txarra. "Ez da onerakua, gauziak dakarren jixia".

JITXIA HARTU.- Erropetan, alde bata luzeagoa geratzen denean. "Soiñekuak jixia hartu detsu albo batera".

JO EJERA (EJERA JO).- Aurkariaren une ahulen bat aitatu. 'Dar en el punto flaco'. "Ejera joixok behin baten, semia aittatuta".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Lahar elkargoa

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGÉ-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Karmelo
Urdangarin

Armeria Eskola

Derrigorrezkoa da orain mende bat armagintzaren industriarako etorkizuneko langileak prestatu behar zirela ikusi zuten eibartarrenaganako mirespen osoko oroitzapena izatea, horretarako aitzindaria izan zen zentroa jarri baitzuten martxan eta azkeneko ehun urteetan hain profesional onak lortu baitituzte.

Egia da Armeria Eskolaren etorkizuna gardenagoa izango litzatekeela hasierako urteetan Lanbide Heziketa beharrean, Goi mailako ikasketak aukeratu izan balituzte. Izan ere, gaur egun ikasketak horrek Unibertsitate Laborala zenean (gaur egun EHUri atxikituta) edo Mondragon Unibertsitatean eskaintzen baitira, campus desberdinetan.

Baina Armeria Eskolaren mendeurrena bizi berri dugula kontutan izanda ere, mirespen handia izan behar dugu eibartar harek o roitzean, XX. Mendean etorkizuna hain garbi aurreikusitua zuten eibartarrekiko. Baina ez ziren bakarrak izan eta nahiz eta izandako abangoardiari garrantzirik kendu ez, Eibarko industrian bertan, bere dibertsifikatzeak etorkizuna aurreikusteko gaitasun handia izan zela erakusten digu. Gai hori beste zutabe batzutan lantzea espero dugu.

Laburbilduz, Armeria Eskolako bultzatzaileekiko mirespena azpimarratu behar dugu, guztiok dakigu-eta zenbat enpresa gizon lortu diren euren lanari esker.

Egazelaiko etxiak zozketatu dittue

Ipuruan, Egazelain Visesa Eusko Jauriaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako sailleko alkarte publikuak sustatutako babes ofizialeko 62 etxebizitzak esleitzeko zozketia atzo eguardixan egin zan, notario baten aurrian baiña publiko barik. Etxiak jasotzeko biharrek hasitta dagoz eta fase bittan egingo dittue. Amenabar S.A. enpresia urbanizaziñorako biharri ekin detse eta zortzi bat hillebeteko epian amaitzia dago aurreikusitta (esleipen-aurrekontua 1.408.255 eurokua da) eta batez be lurmugimenduak eta oiñarrizko zerbitzuen egikaritzia osatuko dabe. Bigarren fasia, barriz, Visesak 62 etxiak eraiki-



tzen amaitzian hasiko da eta horretan urbanizaziñuaren erremate-biharrek egingo dittue, lau hillebetian-edo. Iraillian hasi daben urbanizaziño biharrek indusketa eta betetze-lan garrantzitsuak eskatuko detsez bihariñeri, mugidu biharreko lur-bolumena oso haundixa dalako (81.756 m3 inguru).

Euskeraz bizi nahi dut azokia

Azokia hillaren 21ian (zapatua) egingo da, Untzaga plazan eta bertan Eibarren euskaria ikasi, erabili eta aberasteko aukeria eta baliabidiak eskintzen dittuen alkarte eta erakundia hartuko dabe parte: Udal Euskaltegia, AEK, ...eta kitto! Euskara Elkarte, Hankamotxak bertso eskolia, Udala, Euskal Herrian Euskaraz, Kontseilua, UEU, Badihardugu, Astixa, Kezka dantza taldea eta Klub Deportiboko kultura batzordia egongo dira 11.00-etatik 14.00xetara bittartian martxan egongo dan azokan eta, bestiak beste, erakusketia girotzeko jolasak, jokuak,

musikia eta zozketak egingo dira. Ekitaldixak euskeriaren alde biharrian diharduen 20 bat erakunde egitten dabena bertatik bertara ezagutzeko aukeria eskinduko detse gerturaten diraneri. Azokaren harira, bezperan bertso musikatuak eskinduko dittue Txal-txa Zelaiko kioskuan 22.00etatik aurrera.

Eta azoka egunian, ekitaldixak 11.00etan hasiko dira, Eibarren Euskaraz Bizi Nahi dut agerraldixarekin. Horrekin batera azokia zabalduko dabe, aittatutako alkarte eta erakunde euskalzalien jarduna ezagutzera emoteko erakusketa-



rekin eta, azokia itxi bittartian, umiendako taillarrak eta jolasak, gazte eta helduendako mintzodromua, jolasak, bertso-jokuak, lehiaketia, musikia eta beste jarduera batzuk egingo dira.

Igerilekua domekan itxiko dabe




Udal Kirol Patronatuak aditzera emon dabe-nez, uda denboraldixa agurtuko dogun egunian, domekan itxiko dabe ekaiñetik hona zabalik egon dan igerilekua, datorren urteko udia aillergau eta atzera be zabaltzeko eguna aillergau arte.

Jabetze Eskolako ikastaruak

Eibarko Jabetze Eskolak urritik eta abendura bittartian emoteko sei ikastaro antolatu ditu eta hórretan izena emoteko epia zabalik daguala azaldu dabe Andretxeatik. Eskinduko diran kursuak hónetxek dira: "Sentimientos que empoderan y desempoderan" (20 ordu, gazte-leraz), "Sentitzen dudanak nahasten nauenean" (20 ordu, euskaraz), "Bellas a lo Bestia" (8 ordu), "Enredadas" (16 ordu), "Autodefensa Feminista" (12 ordu) eta "La risa como recurso" (8 ordu).

Matrikulia egitteko epia astelehenian zabaldu eben eta izena emon nahi dabena Pegorara jua biharko dau. Izen-emoteko epia, bestalde, ikastaruaren arabera



egun batian edo bestian itxiko dabe ("Sentitzen dudanak nahasten nauenean" eta "Sentimiento que empoderan y desempoderan" hillaren 24an, "Bellas a lo bestia" urriaren 7xan, "Enredadas" urriaren 10ian, "Autodefensa Feminista" urriaren 28xan eta "La Risa Como recurso" abenduaren 2xan). Klasiak Andretxean edo Portalean emongo ditue.

Arriola eta Valles deklaratzera deittu dittu epailliak

Errebalgo orubearen salmentaren gaineko ikerketaren harira, Iñaki Arriola Gipuzkoako PSE-EEko burua eta Eibarko alkate ohia eta gaur egun Eibarren zinegotzixa dan Jose Luis Valles senatari-ohia deklaratzera juateko deittu dittue Eibarko Epaitegitik. Aurreko asteko barixakuan urten zan epaitegitik Errebalgo auzian Arriola eta Valles inputatu gisara deklaratzera juateko notifikaziñua. Gauzak holan, aurretik deklaratzeko deittuta eguazen beste sei lagunen zerrendiari beste bi izen hónek gehittu detsaz epailliak. Uztaillian Miguel de los Toyos alkatia eta udaleko hainbat bihargiñ Errebalgo lurraren salmenta-operaziñuaren inguruko galdereri erantzuteko inputatu moduan deklaratzera deittu zittuen. Azken inputatu bixak oiñ arte ez deitzeko arrazoia, Arriola eta Valles forupekuak ziran ala ez, horren inguruan zalantzan ibilli dirala ei da. Baiña estatus horrek babesten ez dituela baiez-



tatu eta gero, beste inputatuekin batera deklaratzeko deitzia erabagi dau epailliak. Oiñ arte ez dabe esan noiz jua biharko diran epailliaren aurrian deklaratzera.

autuan

PUBLIKO BILLA

ETB1eko "Airean" magazin barrira publiko modura juateko nahi dabeneko aukeria daguala azaldu dabe programako arduradunak: interesa dakenak 30 laguneko taldia osatu eta 15.15etarako Miramonen egon biharko leukie (17.30xetarako amaitzeko). Autobusa programiak ipiñiko leukie eta saiuaeren amaieran mokadutxo bat emongo detse juandakueri. Gaiñera, taldiari 150 euro emongo detsez. Informaziño gehixagorako 943 07 16 80 telefono zenbakira deittu edo airean@eitb.com helbidera idatzi leike.

EPAIRAKO AUTOBUSA

Bixar, Iruñean, Anaitasunan egingo da Herritarron Epaiaeren azken ekitaldixa, 18.00etan hasitta. Eibartik bertara jua nahi dabeneko autobusa antolatu dabe eta izena-emoteko Depor, Karrika edo Buenos Aires tabernetara jua leike. Egogaiñetik urtengo da autobusa, 15.30xetan.

EZKONTZA AZOKIA

Azken urtiotako etenaldixa eta gero, atzera be Ezkontza Azokia egingo da Armerixa Eskolan urriaren 5 eta 6xan. Bakotxaren eskintza ezagutzera emoteko stand-ekin batera, desfilietarako 10 metroko pasarelia eta bestelako presentaziñuetarako eszenarixua ipiñiko dabe. Parte hartu nahi dabena feriasbodas eibar@yahoo.es helbidera idatzi edo 652766103 telefonora deittu biharko dau.

XOLE AZKUE FERNANDEZ

(Antonio Narbaiza Mugerzaren alarguna)

2013ko uztaillaren 3an hil zen, 92 urte zituela



IRTEERA MEZA

irailaren 15ean, domekan, 13.00ean

Estaziño kaleko San Agustin elizan



asteko
100.000
datua

euro hartu dittu Udalak bere fondotik, herriko larrialdi egoereri aurre egitako. Eusko Jaurlaritzak emondako 194.234 euroak gastatu diralako hartu dabe erabagixa. Eskaeria egitako epia amaitziar daguala, 362 expediente tramitatu dittue herrixan, iaz baiño %50 gehixago.

Gero eta ikasle gehixago

Urtetik urtera herriko ikastetxietan ikasten dabenen kopuruak gora egitten dihardu eta hasi barri dan ikasturtian 4.804 ikaslek beteko dittue herriko ikastetxietako klasiak (unibersidade mailakuak albo batera lagata). Iazko datuekin konparatzen hasitta iaz baiño 230 ikasle gehixagok ekin detse klasierri. Adiñari begira, eskolara lehelengoz juaten hasi diran umiak, ikaslien artian

Hasi barri dan ikasturtian 4.804 ikasle izango dira herrixan, iaz baiño 230 ikasle gehixago

txikixenak, 338 dira. Bestela, Haur Hezkuntzan danera 1.088 ikasle dagoz. Lehen Hezkuntzan (6-12 urte bittartekuak) pillatzen dira



ikasle gehixen, 1.509 hain zuzen be. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 981 ikasle dagoz, Batxillerrian 494, Formaziño Profesionalian 220, Goi-maillako graduari 500 eta, amaitzeko, beste 12 neska-mutil dabiz edukaziño espezialian ikasten.

Kintuen bazkarixetarako izen-emotia

Urrixan hiru kintadarako bazkarixak antolatu dittue eta parte hartzeko asmua dakanak lehenbailehen emon biharko dau izena, horretarako epia amaitzeko egun gitxi geratzen dira-eta: 1958xan jaixotakuak izango dira jaixa ospatzen lehelenguak, urriaren 5ian alkartuko dira-eta. Izen-emoteko Kutxabaneko 2095 5035 00 9112629103 kontu korrontian 75 euro sartuta. Dirua sartzian izen-abizenak argi adierazteko eskatu dabe antolatzailliak.

1963an jaixotakuak, barriz, urriaren 12xan batuko dira alkarrekin bazkaldu eta eguna jai-giruan pasatzeko. Eguerdixan hasi eta gaberaño luzatuko dan jairako programia, bestiak beste,

piskolabisa, talde-argazkixa, trikilarixak girotutako txikiteua, bazkarixa, pintxo-potia eta Punto y Aparte diskotekan egingo daben jaixak osatzen dabe eta jua nahi dabena 80 euro sartu biharko dittu, Kutxabaneko 2095 5035 00 9112868907 kontu korrontian, izen-abizenak adierazita. Informaziño gehixago nahi dabena 2013@gmail.com helbidera idatzita jasoko dau.

Eta 1953xan jaixotakuen bazkarixa urriaren 19xan egingo da, Unzaga Plaza hotelian eta jua nahi dabena urriaren 14rako 60 euro sartu biharko dittu Kutxabaneko 2095 5035 00 9112891259 kontu korrontian, izen-abizenak argi adierazita.



Hiru kintadarako bazkarixak antolatu dittue urriarako. ARTXIBOA

Esperientzia Eskolarako izen-emotia

Debarrenako 50 urtetik gorako edozeiñendako atiak zabalik dittuan Esperientzia Eskoliak ikasturte barrirako izen-emoteko epia zabalik daka. Klasiak, barriz, urriaren 22xan hasiko dittue eta, maiatzaren 29xan ikasturtiari agur esan arte astian hiru egunetan emongo dira, martitzen, eguazten eta egunetan, 09.30xetatik 12.30xetara. Ikasturte honetan klasiak Untzagako jubilaue etxian egingo dira. Matrikulia baillarako udaletxe guztietan egitako aukeria dago eta prezia 200 eurokoa da (iazko bardiña) eta nahi dabena ikasturtian zihar lau epetan ordaintzeko aukeria eukiko dau. Informaziño gehixago nahi dabena www.ikasten.info helbidian topauko dau edo, bestela, 695 788 936 telefonora deittu eta bihar dittuan azalpenak emongo detsez.



Ikasturte honetan hamargarren promozifokuak jardungo dabe.



JESUS ORDOVAS (*musika kritikaria*)

"The Beatles-en ondoren, ezer gutxi sortu da musika munduan"

Jesus Ordoñas soziologoa da izatez, baina musika aztertzen eman ditu urte gehienak. Hiru hamarkadatik gora egin ditu Radio 3 emisorako Diario Pop-ean eta, horrez gain, Espainiako egunkari handienetan jardun du musika kritikari. Trantsizioko lehenengo urteetan sortu zen "movida madrileña" mugimendu kontrakulturalaren bultzatzaile nagusietakoa ere bada. The Beatles taldearen 50. urteurrena dela-eta, Eibarren antolatu dituzten ekitaldien barruan, datorren egunean hitzaldia emango du Portalean (19.30).

- Zer nabarmentzeko asmoa duzu Portalean emango duzun hitzaldian?

The Beatles taldeak pop-aren kulturaren izan duen pisuaz aparte, beste arlo batzuetan ere benetako iraultza ekarri zuela erakutsi nahi dut. Horrek oraindik eragina du gaur egun, asko izan baitira iturri horretatik edan dutenak; ez da une hartako urrats bat, indarrean jarraitzen du.

- "Euren ondoren ez da ezer berriak sortu" esan izan duzu noizbaiten. Titular bat da ala badago beste zeozer horren atzetik?

Egia da: esaldiak balio du elkarrizketa baterako edo liburu bateko titulurako. Baina, neurri handi batean, egia da: musikan diharduten talde guztiak eurek egindakotik edaten baitute, jakinaren ganean edo jakin gabe. Rock and rollaren ondarea jaso zuten eta, baita, mendebaldeko musikako genero guztiak (soul, rhythm and blues, country, ...). Hortik aparte, ekialdera ere jo zuten: bai John Lennonek Yoko Onorekin izan zuen harremanari esker, eta baita Georges Harrisonek Ravi Shankarekin izan zuenarengatik.

- Zer botatzen duzu faltan gaur egungo musika taldeetan??

Talde gehienek euren erroak pop musikan dituzte. Hor David Bowie, Bob Dylan, Chuck Berry... eta The Beatles dira oinarri. Nik eskatuko nieke ez kopiatzeko hainbeste, ez begiratzeko orain arte editatutakoari bakarrik. Ulertzen dut talde batek bere bidea egiten hasten duenean bertsoekin ekitea, baina hortik aurrera zeozer berria sortu behar dute. Aldaketak, egotekotan, musika elek-

tronikoan eta hip-hopetan egon dira, nahiz eta hor ere The Beatlesi jarraitu dieten. Begirada unibertsala falta zaie, orokorrean.

- The Beatlesetik aparte, zein taldek aportatu diote gehien musika munduari?

Estatu mailako pop musikari begiraturata, Los Brincos, zalantzarik gabe. Euren lehen diskoko lan guztiak originalak izan ziren, hementengo The Beatles izatea helburu zutelako. Hor bai dagoela sormena eta kreatibitatea: Espainiako pop-aren oinarria dira. Reggaen eta ska-n izan ziren halako beste mugimendu batzuk.

- Zer eskatzen diozu talde bati gerora erreferente moduan hartua izan dadin?

Inguruan erreferentea izan da, esaterako, Los Planetas taldea, Granadako eta musika indie egin duena. pop-etik abiatuta musika unibertsala egin duelako. Los Ramonesen lana ere aipatzen da, baina horiek ez zituzten pop musikaren arauak apurtu. Badira taldeak musika klasikoaren korapiloetan sartzen direnak, beste batzuk flamenkora jotzen dute...

- Zer gertatu zen `movida madrileñarekin? Non geratu zen?

Mugimendu hori hedatu egin zen; ez da lausotu. Hortik irten ziren Loquillo, Siniestro Total, Juan Perro eta Los Secretos, esaterako, eta eurak dira gaur egun estatuan egiten denaren oinarria. Indiek, aldiz, iparra galdu zuten ingelesez kantatzen hasi zirenean: hizkuntza jakin barik, kopiak egiten hastea handianahia izatea delako.

- Azken hogeit urteotan musika munduan

ezer gutxi aurreratu dugula jarraitzen duzu pentsatzen?

Argi dago, bai mundu mailan eta baita estatutara mugatuta. The Beatlesetik eboluziorik egon ez den moduan, gauza bera Radio Futura eta Nacha Popetik honaino.

- Musika kritikariok pisu handia duzue? Balaratuak sentitzen zarete?

Lan egiten duzun medioaren arabera. Fanzine batean idazten duenak eragin gutxiago izango du, baina irrartian eta telebistan 30 urtetik gora egin badituzu, esandakoaren edo idatzitakoaren pisuak bere tamaina izango du, onerako zein txarrerako.

- Azken aldian jarraitzerik merezi duen talderik aurkitu duzu?

Azken asteburuan, esaterako, La Bien Querida taldea ikusten egon naiz eta gaur egun inguruan dugun onenen artean kokatuko nitzuke.

- Euskal Herriko taldeei dagokienez...

Asko jarraitu nuen euskal rock erradikala eta beste talde batzuk: Negu Gorriak, Duncan Dhu, La Buena Vida... Derribos Arias asko gustatu zitzaidan bere unean. Talde aberatsak izan ziren. Euskera ez jakitean, ez naiz ausartzen hizkuntza horretako musika taldeei buruz iritzirik ematen.

- The Beatles banatzea une hartan onerako izan zen?

Eurek ere horrela onartu zuten: horrela zela onena, unea aproposa zela. Azken aldian nahasketak egiteko bakarrik biltzen ziren, bakoitza bere aldetik zebilen eta egin beharrekoa egin zuten.

Pertsona nagusixekin psikoestimulaziñua lantzeko liburua kaleratu barri dau Ereiñ argitaletxiak eta uztaillian presentau eben lana Donostian, San Telmo museuan. Lahar Elkargoak, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntasunarekin idatzitako liburua holako gaixaren gaiñian euskeraz kaleratu dan lehelengua da. Egilliak Izarne Lizaso (UPV/EHU, Lahar Elkargoa), Jaione Franco (Lahar Elkargoko kidea), Ibon Etxeberria (Lahar Elkargoko programen koordinadora), Pedro Bilbatua (Lahar Elkargoko formaziño ikastaruen koordinadora), Iratxe Arrillaga (Lahar Elkargoko kidea) eta Iñaki Aragon (Lahar Elkargoko koordinadori orokorra), danak gerontologixan urtietako esperientzia haundixa daken profesionalak izan dira eta zerrendako azken hirurak eibartarrak izanda, lan inportante honen barri emon deskue egillietako bik, Iratxe Arrillagak eta Iñaki Aragonek.

Nagusixekin batez be piskologia eta hezkuntza sozialaren ikuspegi-ttik biharra egitten daben hainbat profesionalen ekimenez sortu dan liburuan zaharren funziño kognitibuak estimulatze ariketa eta bestelakuak jaso dittue baiña, horrek dakan interesaren gaiñetik, liburuak badaka azpimarratzeko moduko ezaugarri bat: gaixaren gaiñian euskera hutsian argitara emon dan lehelengua dala. Eta hori gitxi balitz, liburuo jarduera guztiak euskal kultura, geografixa, ohitura eta bestelakuetara moldatu dittue, geure inguruko nagusixeri ahalik eta gehixen gerturatzeko asmuarekin.

Lahar Elkargoa oin dala 22 bat urte sortu zan, Hezkide Eskolan nagusixekin biharrian jarduteko formaziño ikastaro baten harira. Modu zihetzaguan esateko, ikasta-



Euskeria: burua entrenatzeko onena

ruan parte hartu ebenak proiektuarekin amaittu eben kursua eta, diru-laguntza jaso ebela aprobetxauta, orduan sasoiari Di-putaziñuaren menpe eguzen zaharren egoitza bixetan, Tolosakuan eta Eibarkuan emon zittuan lehen pausuak interbenziño psikosozialerako alkartiak. Edozelan be, urtiekin alkartia bere lan-esparrua zabal-tzen jua da eta zaharrekin ezeze, beste kolektibo batzurekin be egitten dabe biharra gaur egunian.

Edozelan be, zaharrak alkartiaren jardunian garrantzi berezixa izaten segitzen dabe eta "Psikoestimulazioa lantzeko ariketa" izenburuko liburua be euredako idatzi dabe, adin batetik aurrerakuak dittuen premiñeri ahalik eta modurik egokixenian erantzuteko.

Iñaki Aragonek azaldu deskunez, "zaha-

rekin biharrian diharduenak, urtiak jua urtiak etorri, gai horren gaiñeko materixala-eta batzen eta kasu batzuetan argitaratzen jua dira, baiña oin dala hiruzpalau urte bihariñendako erabilgarrixa izango zan zezer sortzeko ideari bueltak emoten hasi giñan eta, harixari tiraka, biharra zelan antolatu-eta pentsatzeko batzen hasi giñan. Gaiñera, herri batzuetako zen-truetan ixa zahar guztiak euskaldunak zira-la ikusitta, eureri ahalik eta gehixen gerturatzeko materixala sortu nahi genduan eta, hortik abiatuta, liburu hau izan da denpora horretan egindako biharren emaitza".

Euskal esaera, kanta eta kontuak

Liburuaren helburu nagusixak hónetek dira: lehelengo eta behin, Alzheimer eta holako dementziak eragindako gale-

RUFINA ALVAREZ PECIÑA

3. urteurrena (2010-IX-13)

**GURE BIHOTZEAN
IRAUNEN DUZU BETIKO**

Etxekoen partez



ra kognitibua ahalik eta gehi-
xen atzeratzen laguntzeia. Ho-
rrekin batera, demenziarik ez
daken adiñekuen kasuan, ga-
lera kognitibua prebenitzia
billatzen dabe. Eta hórrek bi-
xekin batera, psikoestimulazi-

ñua lantzeko ariketak euske-
raz proposatzia be nahi izan
dabe egilliak. Eta horretarako
ariketak Euskal Herriko kultu-
ra eta testuingurura begira
prestatu dittue, bai edukixak
baita formatuak be: euskal

esaera zaharrak, Euskal Herri-
ko geografixia, euskal testu-
guruko argazkixak, ohitturak,
errezetak... erabili dittue li-
buruko 138 ariketak sortzeko
orduan. Ariketak, bestalde,
zortzi ataletan banatuta dagoz
eta ataletako bakotxian funzi-
ño kognitibo bat lantzeko ari-
ketak dagoz.

Horretaraño ailegatu aurre-
tik, baiña lan haundixa egin
dabe liburuaren egilliak: libu-
rua argitaratu eta duan banatu
ahal izateko dirua lortu (%50 La
Caixak emon detse eta beste
erdixa liburuan agertzen diran
babesliak), bakotxak bere al-
detik landutako guztia batu,
atzera be antolatu, zirriborro
modukua sortu, horrekin argi-
taletxera jua, idatzittakuaren
hizkuntza kalidadia gainbegi-
ratu, zuzendu, maketaziñua
landu... Bestalde, teknologixa
barririk eskintzen dittuen au-
kerak aprobetxautu, paperean
ez eze liburu PDF formatuan
interneten www.laharelkargoa.org
webgunian zintzilikatu
dabe, nahi dabenak eskuratzeko
moduan.

Gertutasuna helburu

Iratxe Arrillaga psikologua li-
buruko materixala zuzenian
erabiltzen hasi da: "Deterioro

gabeko zaharrekin edo, gehi-
xen jota ariña dakenekin lan-
tzeko ariketak dira, bestiak
beste ariketak egiñ ahal izate-
ko hórrek ulertzeko gauza izan
bihar diralako. Nik hil bakotxe-
rako programia prepatzen
dot eta bertan ze funziño lan-
tzia nahi doten eta horretarako
ariketan aukeratzten dittut".

Liburuak argixa ikusi dabe-
netik denpora gitxi pasautu be,
jendiak oso pozik hartzen
diharduala ikusi dabe. Arrilla-
garen berbetan, "Eskoriatzan
gehixenbat euskaldunekin jar-
duten dot eta asko gustau ja-
kue liburu, pozik hartu dabe.
Kontuan euki bihar da holako
jendia sarrittan hizkuntzaren-
gaittik mugatuta daguala, kos-
tau egitten jakue euren ama
hizkuntza ez dan beste batian
komunikatzia. Gaiñera argi da-
go gertutasun moduko bat da-
guanian gauzak askoz be erre-
zago egitten dirala. Eta gure
egunerokotasunian be, holako
materixala eukitziak asko
erretzen desku biharra. Gaiñe-
ra ilusiño haundixa egitten de-
tse ariketak egittian eurenda-
ko ezagunak diran gauzak to-
patzia. Gaiñera, liburuan gaz-
tetako hamaika bizipen atzera
be goratu eta kontatzeko aitz-
kixa topau dabe".



Psikoestimulaziñua lantzeko liburuaren azala.



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

<ul style="list-style-type: none"> 1 Kardiologia 2 Zirugia 3 Dermatologia 4 Dietetika eta Nutrizioa 5 Análisi Klinikoak 6 Ortodontzia 7 Otorrinolaringologia 8 Pediatria 9 Psikiatria 10 Neurologia (BERRIA) 	<ul style="list-style-type: none"> 11 Barne Medikuntza 12 Radiologia 13 Urologia 14 Traumatologia 15 Koloproktologia 16 Erizaintza 17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa 18 Foto-depilazio Unitatea
--	--



Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27



Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi

El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao ·
· Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe ·
· Espinosa de los Monteros ·



ISO 9001
BUREAU VERITAS
certificación
En Tarjetas y Crematorios

Ander Izagirre igerilariaren brontzea Espainiakoetan

Uztailaren 23tik 26ra arte Pontevedran jokaturako igeriketako infantil mailako Espainiako txapelketetan, Urbat-Urketronik taldeko Ander Izagirrek 3. postua eskuratu zuen libre erako 100 metroko proban. Brontzezko domina horrekin batera, eibartarrak 5. postuan amaitu zuen estilo bereko 200 metrokoan eta zortzigarren sailkatu zen 50 metrokoan.



Urbateko igerilaria eskuman, podiumeko hirugarren tokian.

Kiroljokoa foball-zaletuaren txapelketa abian

Biharko lau partidurekin eta etziko beste hirurekin hasiko da foball-zaletuaren txapelketaren 33. edizioa. Azken denboraldietan legez, eta martitzenean Kiroljokoak Isasinduen egoitzan egindako aurkezpenean adierazi zuten, hamalau taldek neurtuko dituzte indarrak denboraldi be-

rri honetan. Bihar Tankemans-Durango eta EzDok-Esmorga-Akara (09.00etan), Txoko-Alkideba (10.30etan) eta AretogarajesGarcia (12.00etan) partiduak jokatu dira; domekan, bestalde, Caserio-Sporting (09.00etan), Koskor-Iruki (10.30etan) eta Mujika-AzkenaCalton (12.00etan).



Eibar FT-ko harrobiko taldeak galtzaile denboraldi hasieran

Unben jokaturako euren ligako lehen partiduan, Eibar Urkok 1-2 galdu zuen Alavesekin azken minutuan jaso zuten gol baten erruz. Eibarko taldeak jokoan dominatu arren, ez zuen jakin izandako auke-

rak aprobetxatzen. Bestalde, jubenil maila bereko Euskal Ligako taldeak 2-0 galdu zuen Amorebietako zelaian; atsedendira arte eutsi zioten eibartarrek talde bizkaitarrari, baina bigarren zatian behera

egin zuten nabarmen. Eta kadete mailako taldeak ere galdu egin zuen, etxean jokaturako Euskal Ligako partiduan, Alavesekin 0-2. Gasteiztarrek talde indartsua osatu dutela erakutsi zuten.



Kalamuakok hasi dute judo denboraldia

Astelehenean hasi zuten denboraldi berria Kalamua judo taldekoek. Neska-mutilentzako klaseak arratsaldeko 17.30etatik 18.30etara emango dira (astelehen eta eguaztenetan batzuk, martitzen eta eguenetan besteez) eta, helduen kasuan, astelehen, eguazten eta barixakuetan izango dira klase horiek, 19.00etatik 21.00etara. Denboraldi berrirako aurreikusten denaren artean, ezin da aipatu gabe laga Nekane Muguruza Espainiako selekzioarekin izango dela azaroan Errumanian, junior mailako jiu-jitsu-ko munduko txapelketan.

Abasolo Euskaldun Torneoaren bila Altsasun

Higinio Fernandez asturiarrak bizi duen sasoiak Debarrenako Borja Abasolo Euskaldun Torneoaren lidergotik kentzea ekarri du eta domekan Altsasun jokatu den denboraldiko azken proban erabakiko da znor izango den irabazlea. Une honetan nekea nabari zaio Eibarko taldeko txirindulariari eta zaila izango du lidergoa berreskuratzeko. Hala ere, denboraldi bikaina egin du, ia proba guztietan lehenengoko hamarren artean sailkatu baita, garaipen batekin eta hirutan bigarren izanda.



Eibar Eskubaloiak Tolosari irabazi zion

Klubeko senior taldeak Euskal Koparen bigarren jardunaldia jokatu zuen estatuko lehen mailara igo berria den Tolosaren aurka eta 31-26 irabazi zuen, partidu borrokatuaren ondoren. Hainbat beritasun izan ziren taldean, tartean Fernando Fernandez entrenatzailearena: azken honen hirugarren partidu ofiziala zen taldearekin eta Somos Eibarrentzat aurredeboraldiko bigarrena, Ipuruan jokaturako lehenengoa.

Euskal Kopan aurrera egiteko garaipen garrantzitsua izan zen lortutakoa. Arrasaten aurretik irabazi zuten eibartarrek eta Egiaren aurka



jokatu behar dute hirugarren eta azken partidua: ez badute galtzen sailkatuko dira.

Bestalde, DBHko 1. eta 2. mailako neskontzako deia egin du Eibar Eskubaloiak

klubak dituen infantil mailako nesken bi taldeak handitzeko asmoz. Hitzordua martitzenetan dute Ipuruan (17.30etan) eta barixakueta San Andres eskolan.

Eibar FT Kopan aurrera: 1-0 Teneriferi



Urko Vera golarengatik zoriontzen.

Eguaztenean Ipuruan jokaturako partiduan, Garitanoren taldeak Tenerife kanporatu zuen Kopa txapelketatik Urko Vera aurrelariaren golari esker. Emaitza horrekin eibartarrek hirugarren kanporaketa jokatzeko sailkatu dira. Ligan, bestalde, sailkapeneko goi aldean kokatu dira Cordobari Ipuruan 1-0 irabazi eta gero. Bihar, 5. jardunaldian, Sabadell bisitatuko dute Nova Creu Altan, arratsaldeko 20.00etan hasiko den neurketan. Eta hurrengo jardunaldiko Murtziaren aurkako partidua hilaren 21ean, zapatuan, jokaturako da, 18.00etan hasita

berriak

ATLETISMOA

Simon Aldazabal lasterketaren 18. edizioa jokaturako da domeka goizean, Klub Deportiboaren aurretik 10.30etan irtenda. Arratera igo beharko dute parte-hartzaileek, Orbeo bidetik eta aurten Maider Blasco atleta-ohia omenduko dute.



JOTAKE-KO ZOZKETA

Jo Ta Ke foballeko Eibarko peñak zale bati 4.000 euroko isuna ordaintzen laguntzeko egindako zozketan lehenengo saria 166 zenbakiari egokitu zaio eta bigarrena 167ari. Saria jasotzeko azken eguna urriaren 11 izango da. Informazio gehiago jotake eibar@gmail.com helbidean.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
- Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

AUZO LANEAN **Eibar** DENON ARTEAN DENONTZAT

Nolako Eibar nahi dugu 2020an?

Batzar irekia: Irailak 17, asteartea, 19:00etan

Portaleko ikastaro gelan

ehbildu

Arku-tiroketako klaseak urte osorako

Gure herriko Arkulariak taldeak hasierako eta hobekuntzako ikastaroak eskainiko ditu ume zein helduentzat urte osorako. Klaseak eguaztenetan izango dira, 18.00etatik 19.00etara (umeen kasuan) eta 19.00etatik 21.00etara (helduenean), eta Isasi kaleko Mogel-Isasi institutoan -Armerria eskolaren aurrean- emango dira. Erabili beharreko materiala antolatzaileek eskaintzen dute eta, izena emateko, 94-4261468 eta 639-266340 telefono zenbakietara deitu daiteke edo www.arkulariak.com helbidera idatzi.



Arku-tiroketa praktikatu nahi dutenek orain dute aukera izena emateko ikasturte berrirako.

Errugbilariak denboraldia prestatzen

Bihar Gasteizen jokatu den triangularrean izango da Eibar Rugby Taldea, bertako Gaztedirekin eta Irrumpako La Unicarekin lehiari, urriaren lehenengo asteburuan hasiko den liga berria prestatzeko. Aurretik, baina, maila handiagoko Hernaniren aurka jardun zuten eibartarrek Unben: 60. minutura arte, eibartarrek ondo eutsi zioten aurkariari, baina gero argi geratu zen hernaniarrak hobeto prestatuta daudela, asteburu honetan hasiko baitute euren liga. Ibon Ganzarain Eibarko taldearen entrenatzaileak garrantzia kendu zion 0-45eko markagailuari eta Abanzabalegi pozik geratu zen Eibarrera bueltan jokatuako lehenengo partidarekin.



Ipuruako gimnastek abiatu dute denboraldia

Hilabete osoan eman dezakete izena kurtso berrira begira Ipurua Gimnasia Erritmikoa taldearekin jardun nahi dutenek; horretarako, gimnasiaipurua@gmail.com helbidera jo dezakete edo 635-702474 telefono zenbakira deitu. Klaseak astelehenean hasi zituzten eta, denboraldi honetan ere, federa-

tuen mailako I. mailako taldeak jardungo du. Maila horretan denboraldi gehien egin duen euskal taldea da eta, dagoeneko, abenduan Granadan jokatu den Espainiako txapelketarako muntaia dihardu prestatzen. Infantil mailako taldeak, bestalde, azaroan izango da Espainiako txapelketetan.

Aitziber Urkiola eta Jon Agirrebeña onenak Zizurkilen

Aurreko asteko eguaztenean jokatutako Zizurkilgo VI. Kros Mistotan, gure herriko bikotea izan zen azkarrena bost kilometroko distantzia betetzen eta, horrela, probako txapela bereganatu zuen Urkiolak eta Agirrebeñak osatutako antxintxiketako taldeak.



Concepto Egileren fitxaketak: Mikel Treviño, Javier Azkoiti, Raul Erice, Iraitz Olasagasti, Javier Perez eta Rafael Berlanga. Taldeak Siguenzan hasiko du liga asteburuan.

Mendi ikastaroak

Irailaren azken asteburuan eta urriaren lehenengoan ikastaro bi antolatu ditu Gipuzkoako Mendi Federazioak. Bietan ere mendiko orientazioa landuko da, kasu batean iparrorratzarekin eta bestean GPS-aren bitartez, honako edukiekin: oinarrizko tresnen erabilpena (mapa eta iparrorratza), hainbat tekniken erabilpena, ibilbideen antolaketa eta, mendian galdu ezker, hartu beharreko neurriak.



Euriak ez zuen lagundu...

Baina eibartarrak ezin hobeto portatu eta gurekin bat egin zuten berriro ere. Azkeneko hamar urteetan gertatu den moduan, parte-hartze handia izan zen Kittonbolan; ez genituen boleto guztiak saldu, baina giro ezin hobea izan genuen. Zuen elkartasun eta laguntza izan genuen eta sari mordo bat banatu genituen.

Goizeko seiretan igo zen ...eta kitto!ko lantaldeko lehenengo hirukotea eta giroa ez zen oso ona. Euria, hotza eta Kittonbola barruan putzuak eta guzti. Baina goizeko hamarretarako eibartarrak galdezka genituen: noiz zabalduko duzue Kittonbolia? Boletoa erosteko moduan?

EGUZKIAK ANIMATU GINTUEN

Meza nagusia amaituta Kittonbolako parte-hartzeak beti egiten du gora. Aurten, gainera, prozesioa ere tonbola aurretik pasatu zen. Eguzkia ere irten eta zuetako asko



gerturatu zineten zuen boletoa erostera. Inoiz baino sari praktikoagoak izan ditugu. Baleetan, bakkrik, legatza, txuletak, langostinoak edo kotxerako erregaia banatu genituen. Egunerokotasunean ziur erabiliko dituzuela sari horrek. Eta horrela jarraitu genuen eguna, nahiz eta arratsaldean Arraten jende gutxiago zegoela igarri genuen, 20.30etan itxi arte.

ESKERRIK ASKO

Egoera latza bizi du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, zaila dago aurrera egitea. Publizitateari eustea lortzea uste badugu ere, aurten ere diru-laguntza jaitsiera handia izan dugu uda hone-tan, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzen esleipena jakin eta gero. Inoiz baino garrantzitsuagoa da Kittonbolia, Sagardo Eguna, Pirri eta Porrotx edo gabonetako otarra mo-

duko ekimenek herri-tarren babesia lortzea. Arraten lortu genuen. Eguraldia ez genuen lagun izan, baina egin-dako euria kontuan izanda, espero genezakeena baino emaitza hobea izan du; diru horrek 2013ko egitasmo-ei lagunduko die, guztion artean Eibarren euskara bultzatzen jarrai dezagun!

Kittonbolia



KITONbolia



Euskara Elkarte

*Arrate egunean, euro baten truke opariarekin
etxera bueltatzeko aukera izan zenuten aurten
ere. Eskerrik asko parte hartu duten denda
eta enpresa guztiei!!!*

• Alzolako Urak



- Amaña gasolindegia
- Ansa bitxitegia
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe



- Astelena taberna
- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azitain gasolindegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Benicoba

- Blanca loradenda
- Burbujas y mas
- Capi
- Coca Cola - Norbega
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- e&m argazkidenda
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Futbol Taldea
- Eibar Motor



- Eibar outlet
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala
- El Canton de la Avenida



• El Corte Ingles



• Emankor



- En Boga ileapaindegia
- Eroski Eibar
- Errebal Kirolak
- Eslune
- Farmalur
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek




• Gratzina

Lortutako dirua Eibarren euskara

Eskerrik asko parte hartu duzuen danori!

- Guby mutilak
- Guby neskak
- Guillermo arraindegia
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusi-makusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Iñaki del Rey
- Irritsa



- Itxesi
- Izadi loradenda
- Jauregi
- Jaz-Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kantoi gasolindegia
- Kareaga
- Katetxo
- Kerala
- Ketesa
- Kokein
- Krabelin

- Kultu taberna
- Laboral Kutxa
- Lakett
- La Tahona
- Laumar loradenda
- Leder
- Lide
- Lola's
- Luis del Rey
- Mamacas
- Mara-mara
- Marian-idoia spa
- + q wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika harategia
- Natural
- Neure
- Oberena harategia
- Otegi harategia
- Oroz Exclusivas



- Pirritx eta Porrotx



- Pitxiak
- Publiresa
- Quetzal
- Sabores
- Salaberria bitxitegia
- Selene
- Su Ta Gar
- Talleres Aibe
- Tiro Pichon jatetxea
- Tribeka
- Txutxufletas
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Ustekabe
- Vinos Solera Eibarresa



- Valenciaga
- Yraolagoitia



- Zurkulu

ren alde erabiliko dugu!

ARRATE, jaixa errepikatzeko gertu

ARGAZKIAK: LEIRE ITURBE



Dantza txapelketia.



Ama Birjiñaren prozesioa.



Arrateko Amaren dantzak.



Herri-bazkarixa.

Aurreko asteburuan ospatu ziran Arrateko jaixetan azken urtietan baiño jende gitxiago ibilli zan, batez be zapatuan bota eban eurixarengaittik eraginez. Halanda be, domeka eguadirako atertu eban eta, tarteka agertu zan eguzkixak animauta, jaixa ospatzera igo ziranak edarto pasau eben Arrate Eguna. Eurixa egiñ arren programiari bardin-bardin eutsi jakon eta bezperan Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatutako herri-bazkarixan gazte mordua alkatu ziran eta, txosnetako aterpiak babestuta, jai giruan bazkaldu eben. Horrekin batera, herri kirolak bete eben goiza santutegiko arkupietan Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Hodei Ezpeleta eta Alex Txikon aizkolarixak Ostolaza eta Aimar harrijasotzailliekin batera egindako erakustaldixarekin. Arratsaldeko etenaldixa eta gero, gabian segidu eban jaixak. Kantabrian ...eta kitto!-ren eskutik egindako bertso afarixarekin eta gaba osuan eurixa bota arren, Cobra, Kaotiko eta Anai Arrebak taldiak kontzertua emon eben, bustitzeko beldurrik izan ez ebenen gozamenerako.

Eta Kittonbolia! zabaldu ebenek Arrate eguna euripian hasi eben arren amabirjiñaren prozesiñua hasteko orduan atertu eta egun osuan ez eban euririk egiñ. Horreri esker, ekitaldi guztiak arazo barik egin ziran, hori bai, azken urtietan baiño jende gitxiagorekin. Asteburu honetan jaixa errepikatzeo aukeria eukiko dau nahi dabenak, domekan Kofradixa eta basarrittar jubilaueen egunian. Aurten, gaiñera, Arrate izenekuen jaixak kalendarixuan bat egin dabenez, ez da parrandarako aitzakixarik faltauko. Programia 24. orrixan, agendan dakazue.

Bestalde, Arrateko jaixetan Jaixak Herrixak Herrixandakok egindako zozketako zenbaki sarittuak: lehelengua 1.569 (ordezkua 4.239) eta bigarrena 3.668 (ordezkua 2.194). Sarittutako zenbakixa dakenak Jaixak Herrixak Herrixandakori Facebook bidez mezua bialdu leikixo, sarixa noiz eta zelan jaso zihezteko.



Domekan, Arrate egunean, 14 urte bete zituen oso gaztetatik aizkorarekin plazaratu zen Hodei Ezpeletak. Bihurriren semeari aitaren jarduna ikusita sortu zitzaion zaletasuna, "inork behartu gabe" eta badira sei urte enbor gainean lehenengo aldiz ikusi genuela. Pozik dabil eta gauzak datozen moduan hartzeko prest; hori bai, momentuz ez du bere burua aitak egiten dituen marken bidetik ikusten. "Nahiago dut behartu gabe jarraitu" dio.

- Noiztik zara aizkolaria?

Sei bat urte badira. Aurretik, egurrezko aizkorarekin jardun nuen eta, behin hura apurtuta, benetakoekin hasi nintzen.

- Bestelako herri-kirolak egiten duzu?

Ezer ere ez. Ez hori bakarrik; bestelako kirolak ere ez dut egiten. Nahikoa dut aizkorarekin; ez dut bestelako kirolak praktikatzeko beharrik sentitzen.

- Idolorik bai zure ofizioan? Aita, akaso?

Ez dut halakorik. Nire lanean hobetzen joatearekin nahikoa dudala sentitzen dut, baina ez dut inoren eredurik jarraitzen. Aitarekin asko ikasi dut, baina hortik nire idoloa izateraino...

- Zenbat jaialditan izaten zara urtero?

Ez dakit, aitak eramaten duelako hori. Normala denez, uda sasoiaren askoz gehiago izaten ditugu eta abuztuan, esaterako, sei izan ditut. Hasieran aitaren kontra jarduten nuen batez ere; azken aldian, baina, bestelako neurketetetan ere jarraitu dut.

- Zein lanetan jarduten duzu erosoan? Zer duzu gustoko?

Txanda librean pozik ibiltzen naiz. Baina edozertarako prest nago: gustora jarduten dut edozein lanetan.

- Zelako entrenamenduak egiten dituzu? Zenbat eguneko prestaketak astero?

Pare bat aldiz jarduten dut, eta nekatu arte, 20 minutuko saioetan.

- Egurra aurkitzeko zailtasunik bai? Edo nahikoa duzu inguruan?

Ez dugu arazorik, prestatzeko-eta nahiko egur bildu dugulako. Pagoarena da egokiena eta normalean denok erabiltzen duguna, mozteko gogortasun egokiena ematen digulako. Txopoa eta eukaliptoak ere erabiltzen dira, baina azken hauek ez dute ezpalkik askatzen pagorak moduan; kortxo antzerako egurra dute eta aizkorari gehiago kostatzen zaio irtetzea.

- Zelako plazak dituzu gustoko?

Jende asko biltzen dituztenetan gozatzen dut gehien. Zenbat eta animo gehiago jaso, orduan eta gogo handiagoarekin jarduten dut.

- Aitaren bidetik jotzeko asmorik bai: proba luzeekin-eta aha- legintzeko?

Momentuz ez. Luzeegiak iruditzen zaizkit eta nahiago dut gozatu, nire burua estutzea baino. Hala ere, berak jarduten duenean lasai egoten naiz, badakit-eta amaituko duela.

- Etorkizuna hortik bideratu nahi duzu? Prest horri serio hel- tzeko?

Jarraituko dut. Gozatzen du- dan bitartean ez dut arazoirik ikusten aizkora baztertzeko.



Hodei, Bihurri bere aita eta Alex Txikonekin.

Hodei Ezpeleta (AIZKOLARIA)

"Zenbat eta ikusle gehiago, orduan eta erosoago"

GATE
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzatarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

GAZTEEKIN ADOSTUTAKO ordenantza aurrera

UDALAK HERRIAN DAUDEN GAZTE-LOKALEN INGURUKO ORDENANTZA INDARREAN IPINTZEKO asmoa azaldu zue-netik, hori horrela egiteko hainbat pauso eman dira. Bete beharreko hainbat arau jasotzen dituen ordenantzak gazteen artean eragin zuen lehen erreakzioa hasarrea izan zen ia kasu gehienetan eta askok lokalak "heriotza" ekarriko lukeen mehatxu moduan ikusi zuten. Baina ezer baino lehen ordenantzaren zirriborroa herritar guztien esku ipini zuen Udalak, horrela bertan jasotako ondo irakurri eta aztertze-

ko aukera eskainita eta, horrekin batera, aldaketak eta bestelako proposamenak aurkezteko epea zabaldu zuten agintariak, "ordenantzaren inguruko adostasun maila handiena" lortzeko asmoz.

Gauzak horrela, eta Udalari aurkeztutako kejak eta proposamenak aztertuta, horietako batzuk kontuan hartu eta hasierako zirriborroan aldaketak egitea erabaki du Hirigintza Batzordeak. Aldaketak gazteen artean keja gehien sortu duten kontuei eragingo die, hau da, lokalak ixteko ordutegiari, lokaletan alkohola pilatzeko mugari eta lokal batetik bestera zaindu beharreko gutxieneko distantziari lotutako arauari.

Onartutako aldaketak banan-banan aztertuta, ordutegiaren inguruan hartutako azken erabakiari jarraituta, bari-xaku, zapatu eta jai bezperetarako zirriborroak proposatzen



Proposatutakoari jarraituta, ez da alkohola pilatzeko mugarik ezarriko.

zuen ixteko ordutegia ez da ezarriko. Baina ordutegiak ez betetzearren edo bestelako zaraten inguruko salaketak jasotako egia direla egiaztatuko balitz, Udalak araua hautsi duen lokalari ordutegia ezartzeko ahalmena izango luke.

Zirriborroan lokaletan pilatu ahal zen alkohol kopuruari muga ipini zioten, baina proposamen hori ere bertan behera geratu da, gazteek hala eskatuta, baina adin txikikoek alkohola edatea debekatuta dutela gogorarazi diete. Bestalde, kea kanpora ateratzeko premia eragin dezaketen sukalde, su eta bestelako elektratresnak edukitzeko debekuari eustea

erabaki dute eta salbuespen bakarra keak lokaletik ateratzeko hodibidea dutenen kasuan egingo dutela aurreratu dute.

Eta lokalak arteko gutxieneko distantziaren inguruan erabaki dutenaren arabera, gaur egun martxan dauden lokalei urtebeteko epea emango diete legeak dioena betetzeko egin beharrekoak egin ditzaten. Horren harira, gazteek lokaletan egin beharko dituzten moldaketa eta bestelako beharrak ordaintzen laguntzeko, datorren urtean horretara bideratutako diru-laguntzak ematea aurreikusitako dutela eman dute aditzera.



Aire berriak!
Estaziño, 4
943 254776
Rhòl Estilistak

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesez euskarara.
ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

matrikula zabalik
2013/14 EUSKARA IKASTAROAK
goizeko 07.00etatik aurrera

EUSKALDUNTZE OROKORRA
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(AURREZ AURREKOA)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- 3. eta 4. mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

Udalaren laguntzaz **BEKA SISTEMA**

eibar@aek.org

Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: 943 201 379



LUR KORTA (aktorea)



"Gizartearen aurreiritziez dihardugu"

Txalo Produksioak antzerki konpainiak "Pottola" lana antzeztuko du datorren barixakuan, hilaren 20an, Coliseoan eskainiko duen emankizunean. 20.30etan hasiko da ikuskizuna eta sarrerak zortzi eurotan daude salgai. Antzezleak Aitor Fernandino, Joseba Usabiaga, Egoitz Sanchez eta Ainhoa Garai dira, gurekin hitz egin duen Lur Korta protagonista nagusiarekin batera.

- Zelako istorioa kontatzen duzue Pottola antzezlanean? Zela-koa da bertan antzeztzen duzun pertsonaia?

Gizartean ditugun aurreiritziak tarteko ditu antzezlanean. Lanaren izenak adierazten duen moduan, pottolo edo lodiei buruz hitzegiten da. Nik Elenaren papera egiten dut; izan behar-ko lituzkeen baino 30 kilo gehiago pisatzen dituen neska alaiaren papera.

-- Lan horretan norbaiten itxura fisikoak zenbaterainoko eragina izan dezakeen erakusten duzue; baina, gure gizartean, erre-alitatean ere horrelako muturreko kasuak ematen direla uste duzue?

Bai, nahiz eta kontutan hartu behar den zein eremutan dihardugun. Badira gizarteko leku batzuk itxurari beste ezerrri baino garrantzi gehiago ematen diotenak.

- Itxuraren tirania hori arlo askotan ematen da; baina zuek, aktoreak izanik eta antzerki-zine-telebista munduan beharrean ibilita, presio berezia sentitzen duzue?

Bai eta ez. Nik uste gu gure fisikoaz bizi garela gehienbat, baina horrek ez du esan nahi argala izan behar zarenik. Ni argala izan banintz, ez nuke izaten ari naizen aukera hau izango. Argi dago itxura kontutan hartu behar dugula, hori dudarik gabe, baina beste arlo askotan bezain beste.

- Orain arte eskainitako ikuskizunetan nolako erreakzioak izan ditu publikoak?

Jendeak oso gustora ikusten du. Aipatu digutena da askotan barre algara egin ondoren jabetzen direla zertaz ari diren barrez, eta lotsa pixka bat ere sentitu izan dutela.

Gorka gizon arrakastatsua da. Elenarekin maitemindu da erabat, emakume adimentsu, atsegina eta sentsuala baita; gainera, emakume dibertigarria da eta behar baino 30 bat kilo gehiago ditu. Elenarekin harremanetan hasi dela jakitean, bere lagunak diren Alex eta Blanca zirika hasi zaizkio Elenari buruzko iritzi krudelak tarteko, eta esandako horiek eragin itzela dute Gorkarengan, hark ematen duen arrakasta irudiaz duen obsesioagatik. Elenarekin duen harremanaren alde egitera behartuta, Gorkak itxurari buruz dituen kontzeptuei egin behar die aurre, ahal duen bezala, harik eta erabaki bat hartu arte.



Monologoak bueltan Laurel&Hardy-ra

Atzo bertan ekin zioten monologo-saioen hirugarren denboraldiari Laurel&Hardy tabernan, Ramon Gaumak eskainitakoarekin. Hurrengo ikuskizuna Axlor mago-komikoak eskainiko du (hilaren 26an, eguna). Denboraldi estreinatuta berriak dakarren berritasun nagusia monologo-castingera hogeit bat aktore euskaldunekin sartuko direla azaldu dute antolatzaileek, "gehienak ETB-n beharrean jardundakoak dira: Alejandro Tejeria, Alex Rabanal, Asier Hormaza, Bocabeats, El Peli, Gemma Martinez, Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Javier Merino, Kike Biguri, La Reno, Maribel Salas, Txafilas eta Txemi Parra zuzenean ikuskizuna eskaintzen izango dira". Bestalde, epaimahaia ikusleek osatuko dute, internet bidez botoa emateko aukera izango dute-eta. Gainera, botoa ematean era guztietako sariak (afariak, nekazalturismoetara bidaiak...) irabazteko zozketan parte hartuko dute.



Xaboi naturalak egiteko tailerra

Defibel Debabarrena Fibromialgia eta astenia-kroniko elkarteak antolatuta, xaboi naturalak egiten ikasi nahi dutenentzat tailerra emango du Xaboi Punpuila-ko Agurtzane Tejadak. Tailerra urrian, egun bitan emango da: urriaren 16an xaboiak egiteko oinarritzko pausoak ikasteko aukera izango da eta, besteak beste, erabilitako olioarekin xaboiak (birziklatzekoa eta kosmetikoa) nola egin erakutsiko dute. Horrekin batera, gure inguruko sendabelarrak xaboietan erabiltzeko hainbat teknika eta aholku azalduko dituzte. Eta urriaren 23an maila aurreratua lantzeko aukera izango da. Egun bietan klaseak 17.00etatik 19.00etara izango dira, Portalean. Tailer bietan parte hartzeak 20 euro balio du elkarteo bazkideentzat eta 40 euro gainontzeko guztientzat.

TopaEguna Soraluzen ospatuko da

Pil-Pilean Soraluzeko euskara elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak aste honetan aurkeztu dute irailaren 28an Soraluzen ospatuko den TopaEguna eta euskaltzaleen jai eguna izan nahi dutenaren inguruan antolatuta egitaraua. Goizeko 11.00etan jaiarekin bat egitera joandakoei harrera eginda ekingo zaio egunari. Eguerdian Jon Sarasuak hilaren amaieran argitara emango duen liburu berria aurkeztuko du eta, horrez gain, goiz osoan Umeen Hiria, berba-probak, Andrabanda feminista, Kantu Jira eta puzgarriak egongo dira aurreratu dute antolatzaileek. Herri bazkariaren ostean, berriz, Irrien Lagunak, Kultur Gindak, Hezitzaileen arteko jolasak eta kalejira egingo dira. Eta 18.00etan Euskal Herri osoko euskaltzaleen topaguneetako ordezkarien parte-hartzea izango duen ekitaldi nagusiari ekingo zaio. Behin horrekin amaituta, musikarekin agurtuko da jaia, arra-



tsaldean Xero Xiette taldearen erromeriarekin hasi eta 22.30etatik aurrera Kokein eta Gose taldeen kontzertuarekin amaituta.

Vijanera Kantabriako jaiak hasteko



Bien Aparecida Kantabriako amabirjinaren ohorezko jaiak antolatu dituzte Kantabriako Etxekoek, urtero lez. Egitarauari bihar (zapatua) ekingo diote eta, gainera, jaia hasteko oso ekitaldi berezia aukeratu dute antolatzaileek: Espainia mailan interes turistiko handia duen La Vijanera. Urteko lehen domekan aipatutako Kantabriako herri horretan urtero ospatzen duten neguko maskaradaren antzezpena 18.00etan hasiko da, Txal-txa Zelaian, eta jarraian herriko kaleetan ka-

lejiran ibiliko dira maskarada berezi eta ikusgarria osatzen duten pertsonaiak. Eta 21.00etan hasiko den txorizo-jana amaitzean, folk kontzertua emango dute Cesar Higuera "El chaval de Cobejo" rabelistak eta Horniu taldeak. Domekan 12.00etan meza egingo dute San Andres elizan eta 13.00ean, berriz, Jardíñeta kaleko egoitzan bazkide eta lagunentzat piskolabisa emango dute. Eta asteburu honetarako ekitaldiak 15.00etan hasiko den bazkariarekin batera amaituko dira. Hala ere, hilaren 21erako mahaijoko txapelketa antolatu dute eta 22rako toka, igel-toka eta "cuchillo" jokoan inguruko.



laburrak

EUSKALTEGIAK

Euskara ikasteko euskaltegira joan nahi duenak egunotan dauka izena emateko aukera, matrikulazioa zabalik dago-eta: AEK euskaltegian irailaren 27ra arte eskainiko dute matrikula betetzeko aukera eta Udal euskaltegian egun batzuk aurretik, hilaren 20an itxiko dute horretarako epea. Informazio gehiago nahi duenak euskaltegietara zuzenean jo dezake, eskaintzaren berri zuzenean jasotzeko.

ARGAZKIGINTZA DIGITALA

Azken urteotako martxari jarraituta, ikasturte honetan ere argazkigintza digitalaren inguruko ikastaroa emango dute Portalean. Klaseak urriaren 14an hasi eta azaroaren 20an amaituko dira eta astelehen eta eguaztenetan emango ditu Jose Valderrey argazkilariak, 19.00etatik 21.30etara. Izen-ematea astelehenean, hilaren 16an zabalduko dute eta prezioa 47 eurokoa izango da Eibarren erroldatuta daudentzat (besteentzat 79 eurokoa). Informazio gehiago jasotzeko eta izen emateko Pegorara joan beharko da.


VICTOR UBERA MUJICA

-M^a PILAR GISASOLAREN ALARGUNA-

(1. urteurrena: 2012-IX-9)

*Argi bat itzali da / Bergaretxeko lurrean
trikiti hotsa entzuten da / zeru ederrean.*

Aita, beti jarraituko duzu / gure bihotzean. ZURE FAMILIA




○ Euskara Ingelesari begira

Iraganak euskara jatorrean eta ulergarrian idatzitako administrazio testuak laga zizkigun. Ondoren, gaztelaniaren distirak itsututa, testu ulertezinak ekoitzi ziren. Azken urteotan, ingelesei begira garatu da herritarrei gauzak esateko beste modu bat, ulergarriagoa, jakina. Plain English Campaign irizpide nagusietan oinarrituta, IVAP-erako estilo liburuxka prestatu zuten ondoren, 1994an "Biblia" berria sortzeko: "Hizketa argiaren bidetik". Azken horri jarraitu diote Administraziozko idatziek azken urteotan esparru guztietako lanetan.

euskararen txokoa


○ Kutxabanken jarrera euskararekiko

Euskal Herrian Euskaraz herri mugimenduak Kutxabanke euskararekiko duen jarrera salatu du eta, haren ustetan, Gipuzkoa Donostia Kutxak euskaldunen hizkuntza eskubideen alorrean atzera egin du hiru probintzietako kutxek bat egin dutenetik. Kutxabaneko langileen eta bezeroen kezak ere iritsi zaizkio EHEri. Kexa gehienak Gipuzkoatik jaso dituzte, honakoak tartean: bezeroei arreta eskaintzeko postuetan erdaldun elebakarrak, kutxazainetan gaztelania lehenestea eta, lehen sistema informatikoa euskaratua zutenean, orain gaztelania hutsean funtzionatzen duela.



Harixa Emoten, liburutegian

Juan San Martin liburutegiak aurreko ikasturtean arrakasta handiarekin egin ziren irakurketa klub programari jarraituko dio kurtso honetan, gainera orain arteko eskaintzari berri bat gehituta: ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean, orain arte ...eta kitto!-ren egoitzan egiten ziren "Idazlearekin Harixa Emoten" saioak aurrerantzean liburutegian egingo dira. Euskerazko lan irakurketa klub gisara antolatutako saioak liburu jakin baten gainean sakondu nahi duten irakurle taldeentzat bereziki egokiak dira. Euskal Idazleen Elkartearen programari jarraituta, saioetara idazlea bera joaten da, irakurleekin lana zuzenean komentatzera. Gainera, Antxon Narbaizak irakurleei lan bakoitzari mami guztia ateratzen lagunduko die. Saioak urriaren 8an, azaroaren 5ean eta abenduaren 10ean egingo dira, 19.00etatik 20.00etara. Urriko lehen saioan Kirmen Uribe izango da, "Mussche" nobelaren gainean berbetan. Izena eman nahi duenak liburutegian bertan, telefonoz (943-708437), e-mailez (biblioteca@eibar.net) edo interneten liburutegiaren blogean esku-



Antxon Narbaizak jarraituko du euskerazko lan irakurketa klub antzerkoa gidatzen, oraingoan liburutegian.

ratu daitekeen inprimakia beteta izango du horretarako aukera (parte hartzea doan da).

Bestalde, aurretik liburutegiak martxan zituen irakurketa klubak eskaintzen jarraituko dute: gaztelaniazko irakurketa kluba urriaren 15ean abiatuko da, Unni Lindell-en "La trampa de miel" lanarekin. Eta umeena hilean behin egingo da, Txabi Arnalen eskutik (urriaren 22an, eta azaroaren 19an, 18.00etatik 19.00etara).

Irigoienek argazki guztiak Portalean

Datorren asteko barixakuan, 19.00etan zabalduko du Jose Luis Irigoien argazkilariak Portalean "50 urte argazkigintza eta gero hau!" izenburuko erakusketa antologikoa. Inauguraziorako erakusketari buruzko ikus-entzunezkoa prestatu du Irigoienek. Aurkezpena amaitu eta jarraian, nahi duenak argazkilariarekin batera erakusketa ikusteko

aukera izango du. Irigoienek aurreratu duenez, Portaleko erakusketa aretoan 540 argazki, (140 horman zintzilik eta besteak 10 karpitetan sailkatuta) ipiniko ditu ikusgai. Eta horrekin batera, erakusketa aretoan bertan proiektatutako den ikus-entzunezkoan argazkilariaren obra osoa (3.800 bat argazki) ikusteko aukera izango da.

Patricia Kraus




Coliseoko ikuskizun guztietarako sarrerak

Coliseo antzokian urrian eskainiko dituzten ikuskizunetarako sarreraren aurre salmenta astelehenean hasi zen. Ikuskizunak Aracalanzaren "Constelaciones" (urriak 5, 20.30etan, 8 euro), XXI. Musikaldiaren programaren barruan Andres Egiguren Orkestrak emango duen kontzertua (urriak 11, 20.30etan, 7 euro), Kixka Antzerki Taldearen "Txerriketan berriketan" lana (urriak 19, 17.00etan, 5 euro) eta Patricia Krausen emanaldia (urriak 24, 20.30etan, 15 euro). Sarrerak erosteko Coliseora joan daiteke (astelehenean 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara) edo interneten www.kutxabank.es helbidean sartu.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, LOREA Lastra Mateos, bixar urtetxua beteko dozu-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IKER, atzo lehen urtia bete zenduan-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NOAH, domekan sei urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Maren eta Nahiaren partez.



Zorionak, EGOITZ, abuztuaren 20xan sei urte egin zenduazelako. Naroa zure arreba eta Markel eta Eneko lehengusuen partez.



Ongi etorri, UNAX, abuztuaren 24an jaixo ziñan-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien eta, batez be, Jakesen partez.



Zorionak, ANE, atzo zure lehelengo urtia bete zenduan-eta. Etxeko guztien eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, MADDI Gutierrez Lete, astelehenian bederatzi urte egingo dozuzelako. Zure famelixakuen eta lagunen partez.



Ongi etorri, MAITE Quintana Ojanguren, abuztuaren 27xan gure artera etorri ziñan-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, UDANE, martitzenian bi urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GORKA, hillaen 18xan zortzi urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, aitxixa DOROTEO eta amama MARIALUISA, ezkondu ziñaziela 50 urte betetzen diranian. Ederto pasauko dogu hillaen 18xan. Muxu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MALEN eta INTZA, datorren astian 8 eta 6 urte egingo dozuez-eta. Jarraitu hain saltserak izaten, eta jaso muxu haundi bat etxekuon partez.



Zorionak, ARRATE eta JAVIER, zarien modokuak zarielako eta emon deskuzuen 50 urtiogaittik. Zuen seme-alabak, billobak eta arreba.



Zorionak, ALAITZ, sei urte bete zittuan-eta, hillaen 9xan, gure etxeko txikixak! Patxo bat famelixaren partez.

hildakoak

- Jose Manuel Iglesias Carrera. 75 urte. 2013-VIII-24.
- Alberto Egidazu Urdangarin. 47 urte. 2013-IX-5.
- Ramon Suarez Montes. 87 urte. 2013-IX-8.

jaiotakoak

- Lluna Lopez Maquieira. 2013-VIII-24.
- Nahid El Kuadri. 2013-VIII-27.
- Xabier Larrañaga Ibarroondo. 2013-IX-3.
- Saioa Vega Mata. 2013-IX-6.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
14an: 19.30, 22.30
15ean: 20.00
16an: 20.30

"El Llanero Solitario"

Zuzendaria: Gore Verbinski



(2 ARETOAN)
14an: 19.45, 22.30
15ean: 20.00
16an: 20.30

"Guerra Mundial Z"

Zuzendaria: Marc Forster



(ANTZOKIAN)
14an: 19.30, 22.30
15ean: 20.00
16an: 20.30

"Cruce de caminos"

Zuzendaria: Derek Cianfrance



BARIXAKUA 13

PAILAZOAK

18.00. Patxin eta Potxin pailazoan saioa. El Corte Inglesean (3. solairuko terrazan).

ZAPATUA 14

BIEN APARECIDA JAIA

18.00. Vijanera jaiaren antzeppen eta kalejira, Silioko (Kantabria) Vijaneraren Lagunen kultur elkartearen eskutik.

21.00. Txorizo-jana eta folk kontzertua, Cesar Higuera "El chaval de Cobejo" rabelistaren eta Horniu taldearen eskutik. Kantabriako Etxeak antolatuta. Txaltxa Zelaian.

UMEENDAKO TAILERRA

18.00. Umeendako tailerra. El Corte Inglesean (3. solairuko terrazan).

DOMEKA 15

ARRATE IZENEN KOBEN JAIA

08.30. Arratera amabirjinaren pausoen bidetik igotzeko Untzagan batuko dira (bestela, autobusa 09.00etan).

11.00. Meza santutegian eta ondoren bazkaria, jolasak eta dantzaldia. Arraten.

KOFRADIA EGUNA

10.30. Simon Aldazabal XVIII. Antxitxiketaldia. Irteera Klub Deportibotik, Arrateraino (Orbeko bidetik).

11.00. Meza Nagusia bertsolariekin eta Arrateko ezpata-dantzariekin. Ondoren, prozesioa, Usartza Txistulari Bandak lagunduta.

12.00. Paella lehiaketa.
14.00. Paella lehiaketako irabazleei sariak banatzea.
14.30. Jubilatuen bazkaria, trikitilari eta bertsolariekin, Krabelin jatetxean. Baserritar nagusieri opariak banatzea.
17.30. Idi probak. Arraten.

BIEN APARECIDA JAIA

12.00. Meza, San Andres elizan.

13.00. Bazkide eta laguntzat piskolabisa, Jardiñeta kaleko egoitzan.

15.00. Bazkaria. Kantabriako Etxeak antolatuta.



EGUAZTENA 18

HITZALDIA

19.30. "Jaio aurretiko detekzioa. Malformazioak garaiz detektatzea: Array amniozentesiarekin. Amaren odolean testa, amniozentesi barik", M^a Eugenia Kerejeta Poliklinika Gipuzkoako doktorearen eskutik. Portalean.

KONTZERTUA

20.00. Kamorrah, Lycanthrophy, eta Needful Things. Sarrera: 4 euro. Taillarra Gaztetxean.

EGUENA 19

ODOLA ATERATZEA

18.30. Odola-ateratzea, odol-emaileentzat. Anbulategian.

HITZALDIA

19.30. "La revolucion pop de los Beatles" hitzaldia, Jesus Ordovasen eskutik. Portalean.

ikastaroak

✓ Irailaren 27ra arte

ARGAZKIGINTZA DIGITALA: LEHEN URRATSAK.

Noiz eta non: urriaren 14tik azaroaren 20ra arte, astelehen eta eguaztenetan 19.00etatik 21.30etara, Portalean. Informazioa eta izenematea: Pegoran.

✓ Irailetik abendura

JABETZE ESKOLAKO IKASTAROA.

"Sentimientos que empoderan y desempoderan" (20 ordu, gaztelera). Irailaren 24ra arte.

"Sentitzen dudanak nahasten nauenean" (20 ordu, euskaraz). Irailaren 24ra arte.

"Bellas a lo Bestia" (8 ordu). Urriaren 7ra arte.

"Enredadas" (16 ordu). Urriaren 10era arte.

"Autodefensa Feminista" (12 ordu). Urriaren 28ra arte.

"La risa como recurso" (8 ordu). Abenduaren 2ra arte. Izen-ematea: Andretxean edo Portalean.

bekak / diru-laguntzak

✓ Urriaren 11ra arte

XI. JUAN SAN MARTIN BEKA.

Ikerketa esparrua: Kazetaritza. Bekaren zenbatekoa: 9.000 euro. Informazioa: Urriaren 11ra arte, Pegoran.

✓ Urriaren 31ra arte

UMEAK ESKOLARA ETA DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI

Lanak aurkeztea: Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoan (Untzaga Plaza, 7 - 3. behean). Informazioa: Pegoran.

HOROSKOPOA

ARIES

Gehiago lasaitu beharko zeunke eta ez estutu hainbeste gauza txikiengatik. Ikasi behar denari bakarrik garrantzia ematen.

TAURUS

Berriz ere egunerokotasunean murgilduta zaude, nahiz eta oporretatik bueltan horri alde egiten saiatuko zinela esan.

GEMINI

Proiektu berri erakargarriak izango dituzu; pozez zorrotzen ipiniko zaituzte. Egoera aprobetxatzen saiatu zaitze.

CANCER

Iragana ezin da ezabatu; hobe aurrera egin eta datorrenari ondo eustea. Bolada txarrari ere etekina atera dakiokete.

LEO

Espero ez bazenuen ere, maitasun berria iritsiko zaizu. Horrelakoak inoiz ez dira espero, hori delako bere magiaren gakoa.

VIRGO

Zergatik kostatzen zaizu hainbeste muxu bat ematea? Pekatua bailitza hartzen duzu. Ez dago gauza sanoagorik, barren!

LIBRA

Gauzei zure izena ipintzen hasi beharko duzu: ezer barik geratzeko arriskua duzu-eta. Nolako lapurrak dituzun inguruan!

SCORPIUS

Beti erdibidean geratzen zara, honi edo hari, arrazoiak zeini eman jakin barik. Ba orain heldu zaizu bustitzeko sasoi!

SAGITTARIUS

Abesti bat buruan bueltaka izango duzu etengabe. Ez da nolanhiko abestia izango: barnean duen mezua garrantzitsua da.

CAPRICORNIUS

Lagun bati faborea eskatu behar diozu eta ez dakizu nola egin. Gogo onez egingo dizu faborea, zurekin zorretan dago-eta.

AQUARIUS

Noiztik ez zara gauean irtetzen? Behingoz gorputza pixkat astintzea behar duzu, gogortuta geratu aurretik. Ondo pasa!

PISCIS

Azken aldian dena ondo irtetzen zaizu eta joera horrekin jarraituko duzu datorren astean. Hori bai: tentuz, ez eskatu larrei.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Irailaren 22ra arte

SARA BEIZTEGIREN akuarela tailerrekoen lanen erakusketa.
Untzagako jubilatutuek.

✓ Irailaren 30era arte

IJUAN CARLOS PASCUALEN argazkiak.
El Ambigú kafetegian.
JUAN MARI IBARZABALEN argazkiak.
Klub Deportiboan.
EIBARKO ARGAZKI RALLYKO lanen erakusketa. Portalea tabernan.

lehiaketak

✓ Urriaren 4ra arte

ASIER ERRASTI EIBARKO XIV. LABURMETRAIA JAIALDIA.
Lanak aurkeztea eta informazioa:
www.eibar.net eta www.planocorto.es
webguneetan, cultura@eibar.net helbidean eta 943708435 telefonoan.

✓ Urriaren 11ra arte

INDALEZIO OJANGUREN XXVI. ARGAZKI LEHIAKETA
Lanak aurkeztea eta informazioa:
Portalean.

✓ Urriaren 15era arte

SANANDRESAK EIBARRIN KARTEL LEHIAKETA
Lanak aurkeztea eta informazioa: Pegoran.

farmaziak

✓ barixakua 13

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ zapatua 14

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✓ domeka 15

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ astelehena 16

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ martitzena 17

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✓ eguaztena 18

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ eguena 19

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

✓ barixakua 20

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.50, 15.50, 17.50, 19.50 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

			4		9		
	7					1	
			1	3	5		8
9				1	2		8
3							7
4			5	8			9
7	1		6	2	9		
	9					6	
		6			3		

SUDOKUA

8	9	6	7	2	4	3	1	5
2	4	7	1	5	3	9	8	6
3	5	1	8	9	6	2	4	7
1	7	5	3	8	9	4	6	2
4	8	9	2	6	1	7	5	3
6	3	2	5	4	7	8	9	1
9	6	3	4	7	5	1	2	8
5	1	8	9	3	2	6	7	4
7	2	4	6	1	8	5	3	9

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Jardirieta kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. 95.000 euro. Tel. 605-703603.

– Babes Ofizialeko pisua salgai Eibar-ko erdialdean, Ardantza kalean. Logela bat, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. Azkenengo pisua. Terraza handia. Eguzkitsua. Tel. 660-369141 eta 669-731793.

– Pisua salgai garajearekin Donostia-ko Txofre plazan, Groseko hondartzatik gertu. 2 logela, egongela balkoiarekin, sukalde, bainua, hall eta trasteroa. Jantzita, bizitzera sartzeko moduan. Aukera ezin hobea. 360.000 euro. Tel. 943-278422 eta 685-916047.

– Etxebizitza salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, bi komun eta trasteroa. 130 m². Igogailua. Guztiz berriak eta argitsuak. Tel. 626-203838.

– Babes Ofizialeko pisua salgai Amanian. 2 logela, 2 komun, trasteroa eta garajea. 70 m². Tel. 636-458967. Ricardo.

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, 2 komun, sukalde eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriak eta argitsuak. 130 m². Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 2-3 logela. Tel. 618-354218.

– Logela alokairuan eskaintzen dut Eibarren. Tel. 688-647244.

– Buhardila txikia alokagai. Txukuna eta zentrikoa. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. Tel. 656-759593.

– Neskak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 679-910991.

– Pisua alokagai Errekatxun. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Kafetakia. Dena jantzita. Sartzeko moduan. Tel. 659-757572.

– Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela, 2 komun eta terraza. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Leku lasaia eta ondo komunikatua. Sartzeko prest. Tel. 943-201294 / 645-728317.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Harategi-urdaitegia salgai Deban, jubilazioa dela-eta. Martxa batean, bezero partikular eta enpresekin. Lanean jarduteko makinaria guztiarekin. Oso errentagarria. Aukera bikaina. Tel. 943-191214 eta 943-192546. goizgali@yahoo.es

– Kontsulta saltzen dut Untzagako dorreetan. Prezio onean. Aukera ezin hobea. Tel. 943-278422 eta 685-916047.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Untzagako parking-aren ondoan. Marraduna. Tel. 658-339709.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.

Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo elbarrituak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 600-005160.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 608-866535.

– Emakume euskalduna eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 629-889465.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 640-315602.

– Haur Hezkuntzako goi mailako titulua eta EGA duen emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta beste edozertarako. Tel. 660-522271.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserriko lanak egiteko eta kamarero jarduteko. Tel. 686-077316.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.

– Emakumea eskaintzen da garbitzaile lanetan jarduteko: bulegoak, etxeak, tabernak ... Tel. 664-111706.

– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 672-584590.

– Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 672-442318.

– Neska eskaintzen da goizez eta asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 638-047847.

– Emakume eibartarra eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Laguntzaile titularekin. Tel. 616-607121 eta 943-207183.

– Eibarko neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 656-760716.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 616-328060.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta hoteleko kamarera moduan. Tel. 606-354982.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. Tel. 618-814064.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 606-906729.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta hoteleko kamarera moduan. Tel. 608-474923.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 653-075865.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-532589.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.

– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-054894.

– Erizaina eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 699-569998.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Interna. Tel. 649-626975.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 662-012834.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-372936. Julio Cesar.

– Haur-hezkuntza hezitzailea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia haur-eskolan. Tel. 635-201975.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Ordutegi zabala. Tel. 653-075865.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako. Tel. 632-338445.

– Neska euskalduna eta arduratsua eskaintzen da arratsalde umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 695-719744.

– Mutila eskaintzen da altzariak igotzea jaisteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-213652.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako. Tel. 617-181350.

– Enpresa-zuzendaritzan eta alor finantzarioan ikasketak egindako mutila eskaintzen da lan egiteko. Tel. 602-566373. Oscar.

– Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko etabar. Tel. 638-884104.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 672-076852.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 632-253170.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 636-362251.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 677-860971.

– Neska eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 608-820954.

– Emakumea eskaintzen da gaixoak ospitalean edo nagusiak zaintzeko. Tel. 639-962219.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 649-086057..

4.2. Langile bila

– Ofiziala behar da Eibarko ileapain-degi batean. Tel. 943-207207.

– Emakume euskalduna behar da nagusia zaintzeko Mallabian, gau eta egun. Asteburuak libre. Tel. 635-734646.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Ingeleseko Batxilergo edo First mailako irakaslea behar da etxean klaseak emateko. Tel. 652-700114.

5.2. Eskaintzak

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 670-793312.

– Azken kurtsoko Pedagogiako ikasle euskalduna eskaintzen da klase partikularrak eta ikasketak-teknikak emateko. Tel. 676894791.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Gitarra klasiko "espainiarra" salgai. Tel. 649-258913.



Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

Telefona: **943 00 28 23**
www.policlinicagipuzkoa.com

POLIKLINICA GIPUZKOA

JAIO AURREKO DIAGNOSTIKORAKO AZKEN TEKNIKAK

Policlínica Gipuzkoako OSASUN GELAN



M^a Eugenia Kerejeta
BIOLOGOA

Policlínica Gipuzkoako Zelula-Genetika Unitateak jaio aurreko eta osteko diagnostikorako teknika aurreratuen, ARRAY edo kariotipo molekularra izenekoak dauka. Berari esker, orain arte ikerketa kromosomikoaren bidez detektatu ezin ziren adimen-minusbaliotasun **127 sindrome diagnostikatu** daitezke -ez bakarrik Down Sindromea-. Teknika horri eta jaio aurreko diagnostikoan izandako beste aurrerapenei buruz jardungo du M^a Eugenia Kerejeta biologoak hila-ren 18an, 19.30etatik aurrera, Portaleako Kultur Etxean eskainiko duen Osasun Gelan. Sarrera doan da.

Policlínica Gipuzkoako Genetika Zerbitzuko M^a Eugenia Kerejeta biologoak argitu duenez, ARRAY teknika (bertan beharrezkoa da likido amniotikoa ateratzea) haurdun dauden emakumei zuzenduta dago, **bidean dagoen haurtxoari** izan ditzazkeen adimen-urritasunik edo malformaziorik eragin daziozkeen **anomalien presentzia baieztatu edo baztertzeko** fetoren genomatik **-ez bakarrik 21 trisomia (Down)-**. *“Baliozkoa da ere aipatutako urritasunen jaio osteko diagnostikoa, eta horrek orain arte ezezagunak ziren patologiak edozein adinetan diagnostikatzeko laguntzen du”* gehitu du.

Array teknikaren ahalmen diagnostikoa askoz ere handiagoa da bestelako metodoekin alderatuta. Izan ere, mikroskopioarekin ikus daitezkeen aldaketa kromosomikoekin batera, aldaketa azpimikroskopikoak ere diagnostikatzeko dituzte; horrela, 127 sindrome detektatzeko gai da eta, gainera, bestela kariotipo konbentzionala teknikekin edo ez inbaditzaileekin detektatu ezin diren adimen-atzeratasunen eta/edo sortzetiko malformazioen %35 diagnostikatzeko ahalmena dauka. *“Kariotipo konbentzionalak eta FISH-ak eurretako %8-9 diagnostikatzeko dituzte eta Ez Inbaditzaileak eurretako %7 bahetzen dituzte”*, adierazi du M^a Eugenia Kerejeta biologoak.

Zentzu horretan, eta espezialistak argitzen duenez, lorpen hori teknika horrekin eskuratzen den erresoluzioaren areago-

tzeari zor diogu. *“Kariotipo konbentzionalarekin detektatu daitezkeen 500 zati ikertzetik, jautzia egin eta jaio aurreko diagnostikorako hautatutako 60.000 zatira goaz, jaio osteko ikerketarako 180.000 zatira ailegatzera”*.

Baina, zertan datza, zehazki, ARRAY teknika? Kariotipo Molekularra ere deitua, proba bakar batean genomaren kopia kopuruan ematen diren aldaketak eta genetika-materialean izandako irabaziaz/galerak identifikatzea ahalbidetzen duen indar handiko teknologia da. Análisi bioinformatiko baten bidez, Kariotipo konbentzionala moduko orain arte erabilitako teknikak baino 100 aldiz erresoluzio handiagoa duen Kariotipo Molekularra egitea ahalbidetzen du.

M^a Eugenia Kerejeta biologoak argitzen duenez, ARRAY bat egiteko *“beharrezkoa da DNA-aren molekula ateratzea, hori doa eta aztertu nahi dugun pazientearen zelulen barneko informazio genetiko guztia”*. Jaio aurreko Diagnostikoaren kasuan, amniozentesia beharrezkoa da, likido amniotikotik abiatuta fetuaren zeluletik DNA atera ahal izateko. *“Fetuaren DNA-ren molekulara 60.000 zati kontrolerako DNA osasuntsu bateko beste hainbestekin konparatzen dira. Sistema bioinformatikoak erabiliz, DNA-aren zatien irabaziaz edo galerak dauden aztertzen da, fetu-patologia hortik datorrela badakigutena”*, argitzen du.

**OSASUN
IKASGELAK**
POLICLINICA GIPUZKOA



**“ARRAY EDO KARIOTIPO
MOLEKULARRA TEKNIKA
AURRERATUENA DA JAIO
AURREKO ETA OSTEKO
DIAGNOSTIKOA EGITEKO”**



DATA
Irailaren 18an

ORDUA
19.30 h

TOPALEKUA
Eibarko Portalea
Udal Kultur Etxea

sarrera
DOAN



POLICLINICA GIPUZKOA

www.policlinicagipuzkoa.com



UGAN KLUB

F. Calbetón, 21 EIBAR

943 82 04 52

www.uganclub.net



ugan.klub@euskalnet.net

Instalazioak nahi duzunean eta nahi bezain beste erabiltzeko aukera



FITNESS, SPINNING, AEROBIC, AQUATONIC, PILATES, BOSU, ZUNBA, KICKBOXING, TAEKWONDO-TXIKI, ...

IGERILEKUA ETA SAUNA BARNE

dena 60 €

UR JARDUERAK

4 hilabetetik
6 urte bitartekoentzat
igeriketa
(ur temperatura
22,8°C)

**50 €
hilero**



*"Kirola eta
Osasuna
zure
Gustora"*

FISIOTERAPIA ZERBITZUA